

DABID' en 109' garren Eresia

1. Jaunak ene Jaunari esan eutsen: «Jarri zakidaz eskumaldean, zure arerioak oin-aulkitzat jarten dautzudazan artean.
2. Zure indar-zigorra Sion'dik zabalduko dau Jaunak: «Nagusi ta buru izan zaite zure arerioen erdian!
3. Zure jaiotz-egunean guren jaio ziñan, nagusi ta dirdaitso: artizarra baiño len, intza lez, sortu zindudazan.»
4. Zin egin dau Jaunak eta ez jako damutuko: «Zu zara bein betiko apaiz Melkisedek' en saillean.»
5. Jauna dozu eskumaldean: sumin-egunean erregeak eratzi-ko.
6. Erriak epaituko ditu, lurra illotzez bete: Lurbira zear buruak, oro zabal zeatuko ditu.
7. Bideko errekan edango dau: orregaitik jasoko dau burua.

Gaia.—Eresi onek, argi be argi, adi-erazten dausku Kristo'ren erregetza; bai ta bere apaiz erreinua be. Aitaren eskumaldean jezarrita dagoala, zabalduaz doia lurrean aren eskumena. Azkenez be, giza-seme guztiak auzitara deitu ta etsai jakozanak azpiraturik, garaipen osoa lortuko dau.

Azalpena.—1) *Ene Jaunari.* Dabid'ek itz dagi ta Mesias'i ene Jauna deritxa: Dabid'en odolekoa baita, ta batera bere Jauna.

2) *Zure indar-zigorra.* Geituan doia bai Kristo'ren agint-erria: baiditu zoztor eta eragozpenak, baiñainpernuko arerioak ez dira gara aterako.

3) *Guren jaio ziñan.* Errege ta nagusi zara beti-danik, izar, abererrekak baiño len.

4) *Zu zara bein betiko apaiz* Kristo'k, gurutzean illik, esker de netzaillea merezi izan euskun: urken aparrian, barriz, ogia ta arda bere Gorputz eta Odol biurtu. Melkisedek'ek beiñola onen antzera zerbait egin eban.

5) *Eskumaldean.* Eskuman ezarri ta guri neketan lagundu, baidin dira.

6) *Erriak epaitu.* Azken-egunean epaikari dogu, onai saria ta gaiztoai merezi zigorra emonik.

7) *Errekan edan.* Nekezko ura edango dau, gurutze gainean batez be: baiña gurutzez azpiratuko ditu etsai guztiak, eta gu zeruko egin.

